

Andoaingo Udalak enplegarritasun zailtasunak dituzten pertsonen zuzendutako enplegu eta prestakuntza programaren edizio berri bat abiarazi du

Andoaingo Udalak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan, zaurgarritasun arriskuan edota egoeran dauden pertsonen zuzendutako Enplegu eta prestakuntza programa estrategikoaren fase berri bat jarri du abian. Ekimen honek, 2026ko otsailean edizio berri bat izango duenak, Udalak lehentasunezko arretako kolektiboen laneratzearekin duen konpromisoa berresten du, udalerriko emakumeengan ikuspegi espezifiko batekin, langabeziari dagokionez dagoen arrakala kontuan hartuta.

"Andoain margotzen" proiektua Lanbidek diruz lagundutako lehentasunezko arretako kolektiboentzako CATP Enplegu Programa Integralaren barruan dago.

Programa horrek lan-orientazioko eta aholkularitzako ekintzak, laneko, zeharkako eta/edo lanbide-gaitasunei buruzko prestakuntza eta enplegua sortzeko ekintzak konbinatzen ditu, lanaldi partzialeko aldi baterako lan-kontratuen bidez (6 hilabete) (lanaldiaren % 75). Programa hori otsailaren 25etik irailaren 30era bitartean garatuko da.

Espezialitateko prestakuntzaz gain, banakako orientazio-ekintzak egiten dira, bai eta pertsonen banakako laguntza ere, ondoren laneratzea sustatzeko.

Prestakuntzako, orientazioko eta bidelaguntza ekintzak garatzeko, bai eta margoketa lanen gauzatzea kudeatzeko ere, Erroak elkarteak kontratatu da, kolektibo horri arreta ematen espezializatua.

Andoain, 2026ko otsailak 26

El Ayuntamiento de Andoain lanza una nueva edición del programa de empleo-formación dirigido a personas con dificultades de empleabilidad

El Ayuntamiento de Andoain, en colaboración con el Servicio Vasco de Empleo-Lanbide, ha puesto en marcha una nueva fase de su programa estratégico de empleo-formación dirigido a personas en riesgo y/o situación de exclusión social. Esta iniciativa, que alcanza una nueva edición este febrero de 2026, reafirma el compromiso municipal con la inserción laboral de colectivos de atención prioritaria, con un enfoque específico en las mujeres del municipio atendiendo a la brecha existente en relación al desempleo.

El proyecto “Andoain margotzen” se encuentra dentro del Programa Integral de Empleo para Colectivos de atención prioritaria-CATP subvencionado por Lanbide.

Dicho programa combina acciones de orientación laboral y asesoramiento, formación en competencias laborales, transversales y/o profesionales y generación de empleo a través de contratos de trabajo de carácter temporal (6 meses) a tiempo parcial (75% de jornada). Dicho programa se desarrollará entre el 25 de febrero y el 30 de septiembre.

Además de la formación en la especialidad, se realizan acciones de orientación individual, así como un acompañamiento individual de las personas con el objeto de potenciar su posterior inserción laboral.

Para el desarrollo de las acciones formativas, de orientación y acompañamiento, así como para la gestión de la ejecución de los trabajos de pintura se ha contratado a la Asociación Erroak, especializada en atención a este colectivo.

Andoain, 26 de febrero de 2026